



# Familiei laguntza eskola materiala erosteko eta Irungo merkataritzari zuzendutako babesa 2024/2025

## GALDERA OHIKOENAK (Pág. 1/3)

### **Non eta noiz eska ditzaket eskola-materialaren laguntzak?**

Eskola-materialaren laguntzak Irungo Udalaren egoitza elektronikoan ([www.irun.org/egoitza](http://www.irun.org/egoitza)) eska daitezke, uztailaren 2tik irailaren 30ra bitartean.

Horretarako, sinadura elektronikoa bat erabili beharko duzu (Irun Txartela, izenpea, NAN elektronikoa). Sinadura elektronikorik ez baduzu, Irun Txartela eska dezakezu [www.irun.org](http://www.irun.org) helbidean.

Ezin baduzu sinadura elektronikorik eskuratu, kontsultatu HAZ/010.

### **Eskolako materiala non eros dezaket?**

Eskolako materiala Irungo edozein saltokitan erosi behar da. Ikastetxeetan edo Ikasleen Gurasoen Elkartei egiten diren zuzeneko erosketak ere onartuko dira.

### **¿Ikasturteko edozein unean egindako eskola-materialaren erosketen fakturak aurkez ditzaket?**

Ez, fakturek 2024ko ekainaren 21tik irailaren 30ra egindako erosketak ziurtatu behar izango dute

### **On-line egindako erosketen fakturak onartuko dira?**

Bai, fakturan adierazten den helbidea Irungoa bada

### **Zein dira diru-laguntza jaso dezaketen eskolako materialak?**

Laguntzak jaso ditzaketen eskolako materialtzat hartuko dira ondorengo elementuak:

- Idazmahaiko materiala eta suntsigarriak: arkatzak, boligrafoak, ezabagailuak, klipak, zorrozkaileak, eskuairak, kartaboiak, garraiagailuak, rotring, koadernoak, folioak, informatikako suntsigarriak,
- Material ez suntsigarriak: Karpetak, sailkatzaileak, artxibagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako motxilak, testuliburuak (Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioaren Programakoak barne eta digitalak), orri-bereizleak,
- Eskolara joateko beharrezkoak diren jantziak: Eskolako uniformeak (eskolako mantalak barne), betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak), heziketa fisikoa egiteko kirol arropa eta oinetakoak.
- Eskulanetarako elementuak Heziketa Artistikoa, Heziketa Plastiko eta Bisuala, Teknologia edo Musika (argizariak, olioak, pinturak, pintzelak).
- Eta oro har, ikastetxeak zirkularrez berariaz eskatutako edozein material.

### **Zein izango da laguntzen zenbatekoa?**

Laguntzak gehienez 160, 125 edo 100 € izan daitezke, Familia Unitateko kide guztien errentan oinarrituta, tarte hauen arabera:

- Urteko diru-sarrerak 27.000 € artekoak duten familiek gehienez 160 €-ko laguntza jaso ahal izango dute.
- Urteko diru-sarrerak 27.000 € eta 39.500 € artekoak duten familiek gehienez 125 €-ko laguntza jaso ahal izango dute.
- Urteko diru-sarrerak 39.500 € eta 52.000 € artekoak duten familiek gehienez 100 €-ko laguntza jaso ahal izango dute.

Urteko diru-sarrerak 52.000 € baino handiagoak duten familientzat ez da laguntzarik emango.



# Familiei laguntza eskola materiala erosteko eta Irungo merkataritzari zuzendutako babesa 2024/2025

## GALDERA OHIKOENAK (Pág. 2/3)

### **Zein dira kontuan hartzen diren familiako diru-sarrerak?**

Errenta Aitorpeneko inprimakian 2023ko urte fiskalaren "osagai positiboak guztira" laukiaren ondoan ageri den kopurua hartzen da kontuan, eta baita zergari ez lotutako edo salbuetsita dauden errentak ere. (Laguntzak, kalte-ordainak, herentziak...).

### **Zeri deitzen zaio Bizikidetzaren Unitatea?**

Bizikidetzaren Unitatea deitzen da Irungo Biztanleen Udal Erroldan orri berean ageri diren kideek osatzen dutena, laguntzaren eskaera egunean.

### **Laguntza jasotzeko aukerarik badute Frantzia eskolatutako adin txikikoek?**

Bai, baldin eta Irunen erroldatuta badaude eta derrigorrezko hezkuntzan eskolatuta badaude.

### **Eta beste herrietan eskolatuta daudenek?**

Baita ere. Baldintza bakarrak Irunen erroldatzea, derrigorrezko hezkuntzan eskolatzea eta Irungo saltoki batean ikasmateriala erostea dira.

### **Laguntza jasotzeko aukerarik badute 2018az geroztik jaiotako adin txikikoek?**

Ez. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketa etapetan eskolatutako adin txikikoei soilik zuzenduta dago laguntza. Batxiler, Lanbide Heziketa edo Erdi edo Goi mailako ikasketetan eskolatutakoak ere ez dira laguntza hauetan sartzen.

### **Zer-nolako kirol arropa aintzat hartuko da laguntzetan?**

Heziketa Fisikoa egiteko baliagarria den edozein, eta ez dadila kirol bakarrerako espezifikoa izan.

### **Eskaerarekin batera Errenta Aitorpena aurkeztu behar al da?**

Nahitaez ez. Udalak errentari buruzko datuak eskatuko dizkio Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei.

Daturik ez lortzekotan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren datuak eskatu zaizkio Lanbideri eta Lanbizitzaren datuak Gizarte Asegurantzari. Horren ondoren, datuak ez badira osoak edo ez badira lortu, erreklamatu da 2023 ekitaldiko sarrerei buruzko agiriak aurkeztea. Pertsona horien artean, egon daitezke 2023an Gipuzkoa, Bizkaia edo Arabatik kanpoko zergadunak izan direnak.

Dena dela, formularioan 2023 ekitaldiko sarrerei buruzko agiriak igo daitezke.

### **Egindako gastuarekiko proportzionala izango al da laguntza?**

Ez. Laguntzak gehienez 160, 125 edo 100 €-koak izango dira Familia Unitatearen diru-sarrera gordinak kontuan hartuta.

### **Fakturak: noiz entregatu behar dira eta nola?**

Laguntzaren onuradun izan ahal izateko, fakturak ez dira eskaeran aurkeztu behar. Hala ere, fakturak (edo faktura sinplifikatuak) erantsi daitezke eskaerarekin batera, edo edozein unean irailak 30a baino lehen.

Jatorrizko fakturak gorde egin behar dira prozesuaren edozein momentuan eska daitezkelako.



# Familiei laguntza eskola materiala erosteko eta Irungo merkataritzari zuzendutako babesa 2024/2025

**GALDERA OHIKOENAK (Pág. 3/3)**

## **Zer da faktura sinplifikatua?**

Legezko faktura bat da, faktura konbentzionalak baino informazio gutxiago duena baina kasu honetan baliagarria. Gorabehera jakin batzuetan egin daiteke (adibidez, 400 € baino gutxiagoko salmentetan) baina ezinbestez adierazi behar dute zenbakia, data, IFZ eta egin duenaren izena eta bi abizenak edo enpresaren izena, erositako ondasun edota zerbitzuen identifikazioa, zerga-tasa eta zenbatekoa guztira.

## **Laguntza jaso dezakeen materiala ageri duten faktura guztiak lortu behar al ditut?**

Ez. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa osatu arte egitea aski da, hau da, seme-alaba bakoitzeko 160€.

## **Liburuak ikastetxean erosi ditut eta ez daukat fakturarik, zenbateko osoa adierazten duen ordainagiri bat baino ez. Zer egin behar dut?**

Ikastetxeari faktura eskatu beste edozein transakzioetan bezala edo eskolako beste material motagatik daukazun fakturarekin justifikatu. 2024/25 ikasturteko Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programaren bitartez erositako liburuekin ezin da fakturarik egin zerbitzu publiko bat delako. Ikastetxeei jarraibideak eman zaizkie prezio publiko hauek justifikatzeko moduaren inguruan.

## **Seme-alaba bat baino gehiago badut, horietako bakoitzarentzat eskaera bat egin behar al dut ala denentzat bakarra?**

Eskaera bakarra egitea hobe da, laguntza jasotzeko eskubidea duten Bizikidetzaren Unitateko adin txikiko guztiak adieraziz.

## **Nire semea/alaba batxilerra egiten ari da baina ezarritako tarte horretan jaiotako (2007), aukerarik ba al du?**

Ez. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Oinarrizko Hezkuntzan eskolatutako adin txikikoei soilik zuzenduta daude laguntzak.

## **Errenta aitortzen ez dut Gipuzkoan, Bizkaian edo Araban egin. Zer egin behar dut nire diru-sarrerak kalkulatzeko?**

Errenta Aitorpena entregatu zergak ordaindu zenituen lurraldean, bai eskaerarekin batera, bai Udalak eskatzen dizunean edo.

## **Hiztegiak ere laguntzak jaso ditzaketen eskolako materialtzat hartzen al dira?**

Bai. Hiztegiak ikasketarako ezinbesteko tresna dira eta beraz testuliburutzat jotzen dira.

## **Bigarren eskuko liburuen programaren bitartez erosi ditut liburuak eta ez daukat fakturarik.**

Ikastetxeak ordainagiri bat entregatuko dizu Udaletik bidali zaizkion baldintzak kontuan hartuta.

## **Behin eskaerak eginda, nola jakingo dut laguntza eman zaidan ala ez?**

Informazio hori zure posta elektronikoan jasoko duzu. Udaleko Irigarri eta Ediktuen Atari DIGITALEAN argitaratuko den zerrandan ere kontsultatu ahal izango duzu.

## **Irungo Txartelarekin arazoak ditut, ezin dut sartu, ezin naiz identifikatu, etab. Zer egin dezaket?**

Irungo Udaleko 010 telefonora deitu edo Izenpe erakundearekin harremanetan jarri: [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus)